



Jose Pablo Ulibarri. Esanak eta eginak

Ulibarri Euskaltegiak izena Jose Pablo Ulibarriren omenez hartua du. Jose Pablo Ulibarri (1775-1847) aitzindari sutsu izan zen euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren defentsan. Okendokoa (Araba) zen, herri euskalduna zen garai hartan. Abandon (Bilbon) bizi izan zen, bertako "fiel errejidore" zen eta, gainera, artxibatzaile-kontulari etab. izan zen. Bizkaiko Jaurerriko arazoetan ere parte hartu zuen. Ideologiaz, Konstituzioaren aurkakoa zen. Harremanak izan zituen garai hartako euskaltzaleekin: Zabalarekin, Iztuetarekin, Bizenta Mogeekin, E. Basozabalekin eta abarrekin.

Ulibarri euskal kontzientziaren iratzarle izan zen: euskara irakasbide bezala eta nonahi (kalean, bilkuretan, agiri idatzietan) erabiltzearen eta euskaldunei euskaraz egitearen alde agertu zen. Proiektuak edo ekitaldiak egin zituen euskal eskola bat eraikitzeko, irakasgai guztiak euskaraz irakatsiko zituena. 1829an Gernikako Batzar Nagusietarako txosten bat prestatu zuen. 1841ean euskal katedra bat sortzeko erabakia hartu zen eta Euskal Akademia bat sortzearen alde ere atera zen (Errorengandik hartu zuen ideia hau).

Ulibarririk *Gutunliburua* idatzi zuen (Arabako Foru Aldundia, 1975, faksimile eran). Liburu hori berak idatzitako gutunek (Zengotita Bengoa, Erro, Valdespina, Novia de Salcedo eta abarri), berari idatzitakoek eta kontakizun eta neurtitz batzuek osatzen dute.

Gutunliburuaren bigarren zatian, literatur asmoko bertsoak daude; testu horiek ez dira Ulibarrirenak, ordea, beste batzuenak baino. Poemario didaktiko moduko bat dela esan daiteke. Neurtitz hauetan historiako gaiak eta euskal historiakoak lotzen ditu, euskal nekazarien, olagizonen eta marinelen kantuak dira.

Ulibarrirena bide da "Egunari euskerazkoa" ere, lehen euskal egutegia (1815), Abandoko Elizateko gabon kanta batzuk ere (1826koak) harenak dira. Horietan egileak darabiltzan gai nagusiak hauek dira: foruak, euskara, ekonomia eta ohitura onak. *Gutunliburuan* jorratu zituen gaiak honako hauek izan ziren: euskal eskola, Bilboko joera erdaltzalea eta Euskal Akademia baten beharra. Euskara ereduari dagokionez, Ulibarririk Larramendiren hitz berriak erruz erabili zituen.